



KRAAK!

AAAAAAA

UAAAAA

AUUUUUUUH...!

KREEJK

ARRRRI

JESSE-84

Euskal Biblioteka Labayru



1022924

Literatura-33/(560.libx.)
Liburuxkak

ARPEKO MARI

EUSEBIO ERKIAGA

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Eusebio Erkiaga

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Deposito Legal: BI- 510-84

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

ARPEKO MARI

Baserriko mutiko aurpegi gorri bat kaleko eskolara hasi zan. Begi baltz baltzak, bizi biziak.

Lehenengoz heldu zan egunean amagaz etorren. Goizerdi ingurua zan eta neska-mutikoak jolasunea hasteko egozan.

Txomin konturatu zan lehenen.

—Ene! Mutiko barria dator eskolara, baserrikoa —esan eban.


—Aufa! —gehitu eutsan beste batek, pozarren.

Umeteri gehiena jolasera joan zan. Txomina eta, ostera, han hurrean geratu ziran. Neskato batzuk be, han alborago egozan.

Irakasle baten aurrean, ikasle barri izango zana han egoan, amaren ondo ondoan, burua makurtuta, baina noizean behinka burua apur bat jaso, ta begiak ezker-eskuma bizkor erabiliaz, barriro be lurrera begira jarteko.

—Txoriak lez begiratuten dau —esan eban Txominek.

—Txori artean haziriko umea izango da —erantzun eutsan, patxadaz eta irribarreka, Simonek.



Gerotxuago ama joan egin zan, eta irakasleak ikasle barria beste mutikoengana eroan eban.

—Umeok! —aldarri egin eutsen—, laguntxu barri bat dozue eskolan ibilteko.

—Izena zelan dau —itandu eban Txominek.

—Zeuk esan —inotsan Irakasleak, zirikatuz.

—Andres —erantzun eban heldubarriak.

—Zelaaan? —diadar egin eben heldubarriak.


Ikasleak alde egin eban barrurantz.

—Zelaaan? Ez dogu ulertu.

—Andres —esan eban gogortxuago.

Inguruan egoan aldrako mutil batzuk, barrezka, algaraz, kantuan hasi ziran, sarritan entzuna gogoratuaz:

“Andres,
Andres,
katua negarrez;
ama,
ama,
ama iturrian,
kaka eperdian...”



Han aurrean egozan neskato batzuek, bai mutilei hasarreka esan be:

—Lotsagaldukook!


Mutilak, neskatoen agirakea gorabehera, bigarrenez be, kantuari ekin eutsien.

Andresek musturrak estutu eta ingurukoei begiratu eutsen. Lehenengo zerean, bere burua bakartadean ikusten eban.

Horraitino, eskolara barriro sartu baino lehen, mutikoetariko hiru-lau, lagun barri egin jakozan, eta Txominen eta Simonen besoak sorbalda ganean ebazala joan zan bere ikaste-lekura.

Iluntze hatan Andres basetxeratu zanean, ama arduratan egoan, bere semeak eskolarako gogorik-eza agertuko ete eban. Baina, bai zera! Andresek ez eban halango barbarik aitatu, lehenengotan burle egin eutsiela, etxekoei azaldu eutsen arren.

* * *




Andres, kaleko eskolumeen artean ondo zertu zan. Ikasteko zaletasuna agertzen eban eta eskolako zereginetan errime aurrera egin.

Hotz egoanean pelotaka egitea gustatzen jakon, eta epel edo bero egoanean jolasaldietan kontu-esaten batzen ziran aldrakoak arbolapean. Ordurako, aldrea be, handiago zan.

Urte batzuk horrelan joan ziran.

Kaleko mutikoak horko ta hango abilkeriak, guzur eta abar esan ohi ebezan, eskuekaz eta gorputzagaz zeinu ta paristak eginaz. Andres, halango kontu garratzak entzun arren, ez zan aho zabalik, konkortuta geratzen. Ipuinen haria eten edo egiten zanean, orduan leun leun gehitu ohi eban:



JESSE-84

—Horra ba; Arpeko Marik, barriz!...

—Zeeer?

—Ba dakit nik...

Eta hurrengoan eta hurrengoan, barriren bari goiak ete beheak, atzera-aurrera itzelak kontatzen ebezanean, Andresek, ezer esango ez baleu lez:

—Bai ba; Arpeko Marik, barriz!...

Andresek etxerantza aldegin ondoren, Txominnek eta Simonek euren artean:

—Guk handiak esaten doguzanean, Andresek Arpeko Mari...

—Arpeko Mari nor dan itandu behar deustagu bihar bertan.

—Hori, hori!

Esan eta egin.

* * *



Biharamonean, jolasunea heldu zanean, mutiko lagunak:

—Zuk, Andres, Arpeko Mari aitatuten dozu sarri.

—Sarri ez, batzuetan.

—Baina, nor da?

—A, bazenkie jakin!... Han gure inguru guztian ezaguna da.

—Bai, e?

—Zer esan bakoa.

—Ta, nun bizi da?

—Bizi ba... Arpean. Horregaitik da...

—...Arpeko Mari —esan eben danak.


—Jakina, ba.

—Eta, zer egiten dau?

—Zer egin? Harek?... Hori... ezin leitekio inori edonoiz esan, edozein egunetan.

—Noiz, ba?

—Trumon-egunetan bakarrik. Beste gauzak orduan esatekoak dira. Eta han goian, mendian.



—Horrelan ba, gu hara gora... trumoiak joten dauan egunen batean?

—Horixe.

Eta Andresek, piperra baino zerago gehitu eutsen:

—Kaleko mutil bildurtirik ez dau ikusi gura izaten.


—Guztiok batera joan ezkerro, ez dago bildurrik.

—Ondo da; baina lagun lar joaterik ez da komeni. Lehenengo txandan batzuk joango zarie, aldra bat. Eta beste batzuk hurrengoan; barbarako, Txomin, Simon...

Mutilak baietzean geratu ziran, eta eguna izentau behar izango zala. Horraitino, Txominek eta Simonek euren artean barriro be:

—Hauxe dok ederra! Lagun zerenak geu izan, eta hurrengorako bazterrean laga gaitu.

* * *



—Ta, Andres, noiz joango gara ba, Arpeko,...

—Begitu, laster hasiko dira trumon-egunak, behin maiatzera ezkerro. Maiatzeko domeka arratsalde baten, trumoiak joten dauanean...


—Ta ziur zelan jakingo dogu?

—Goizean eguna bero badator, zerua hodeiz eta lanbroz beteten hasten bada... zuok, bazkal-ostean tipi-tapa ekin aldapan gora.

—Arperako biderik ez dakigu, baina!

—Ez dozue zetan jakin be. Urrategi auzunean gora jo, ta han laster dago San Martingo ermitea. Hantxe egongo naz zeun begira.

* * *



JESSE-84

Maiatzeko domeka hatan eguzkia min-min etorren eta mutikoei goiz sargoritsua luze egin jaken, batean herriko erlojuari begira, hurrengoan hodei txikiei ta gero hodei moltzoei begira. Hegoa haizea zoro zoro ebilen.

Mutilak zubi-ondoan bazkal-ostean alkarrenganaten hasi ziran. Une guragarria ganean eben. Txomin eta Simon, joaterik ez ebela-ta penaz beterik egozala, agertu be ez ziran egin.

Eguzkiak hodeipean zeharo kuku egin eban eta haize errea kiribil dantza gangarrean ebilen, orbelak eta zaborreria batzen.

Mutilak Urrategi auzorako bidean gora jo eben.


—Trumoia entzun dot —esan eban hareetari-ko batek.

—Nik, barriz, oinestua ikusi dot.

—Ni euri-tanteak jo nau belarrarian.

—Alperrena joten dau lehenen.

—Hona hemen Salomon!



Hor ete hemen itaunak eginaz, burdibidean gora heldu ziran San Martingo ermitaraino.

Andres han egoan.


—Trumoirik entzun ete dozue? Ba, nik entzun dot. Hiru bider jo dau. Laugarrenez jo orduko, Arpera heldu behar dozue.

—Urrun al dago?

—Ez, ba.

Burdibidea laga ta zidorrean eta oin-bidean zehar joiazan. Andres aurretik, erakusle antzean; besteak ondoren. Otak, sasiak eta elorriak han egozan euren arantzak, euren ezpata zorrotzak aterata. Horkoak zizt eta hemengoak zazt, urrakadak mutilen eskuetan eta berna biloizetan.

Heldu ziran koba txikiaren aurrera. Euri-tanta lodiak hasi ziran eta koba sarrera ondoko aterpe estu hatan, horma kontran alkarri sakaka egozan. Alboan egoan zulo iluna, sakona, baltza, ixila. Barrutik hozkiriya etorren, hezo antza.



—Aiko, bildur? —esan eutsan mutiko batek albokoari.

—Ez... txixelarri besterik ez.

—Ba daukazu nun egin.

—Baita zeuk be.

—Ta... nun dogu Andres?

Guztiak alkarri begira hasi ziran eta han ez zan Andresen gerizarik be agiri.

Tantak zaparrada bihurtu ziran, eta geroago euria botalan zan. Haizeak intziri egiten ebala zirudian eta txixelarri ziranak ugaritu egin ziran.

Oinestu ikaragarriaren eta trumon-orroaren osteango ixilunean, bat-batean... han, koba barruan sekuleko burdina-hotsak, uluak, kankarro-hots itzelak, eta demorrioko zaratak, eta txakurren zaunkak, txakur amurratuen ausiak, eta zantzo zorroak.



KRAAK!

AAAAAAA

UAAAAA

AUUUUUUUH...!

KREEJK

Mutilak, alkarri berbarik be egin barik, tximistek baino arinago aldegin eben Arpetik, euri mamina burutik behera ebela.

Nundik edo handik San Martingo ermita ondoan zehar, aldapan behera joiazan arineketan edo narrasean.

Urrategiko basetxe bateko atartera busti busti eginda heldu ziran mutikoak, etxekandre maratzak sukaldera eroan ebazan.

—Nundik zatoze ba, mutil ederrok, jai eguneko jantziok lexiban sartuta?

—Arpetik —esan eben, arnas estuka.

—Arpean zer egoan, ba?

—Andresek eroan gaitu, trumon-egunez Arpeko Mari ikusi daigun.

—Ta, ikusi bai, gero?

—Ez, e... txakur amurratuak...


—Elorrioak!... Zatoze sutondora ta siketu hemen zeuon jantziok.

Ta sagardoa emon eutsen andra maratzak, barreari eutsi ezinik iraun eban luzaroan.

Etixerakoan, bidean behera, mutiletarik batek esan be bai:

—Hau dok kalekoari ziria sartzea!





GIZON TOTOLOA


EUSEBIO ERKIAGA

Mutikotxua zala, Iker noizean behin aititaren basetxera joaten zan, egun batzuk emoteko.

Pozik eta gozaro pasatzen ebazan egun apur hareek, basetxeko lagun mazalen artean eta batez be, lehengusu lehengusinekaz olgetan eta jolasean ibiliz.

Kalean ez egozan gauzak aurkitzen ebazan baserrian. Hango umetxu senideak atseginez emoten eutsiezan arasa-ganean edo txoko ezkutuetan gordeta euki ohi ebezan intxaurrak, urretxak, negualdea bazan; eta okaranak, motako mailuki txikiak eta abar udabarri beranduan, eta kerixak eta albertxikuak. Geroago, ikoak eta sagarrak eta gaztainak.


Ikerrek, batzuetan, oinetakoak kalean baino errezago zikinduten ebazan, patin inguruan, potxingo ertzean edo iraulan dzapa! urrats egiten ebanean, arean, leku zingiratsuetan.



Halan, korta ikuiluan zikindu arren be, behien eta txalen artean ibiltea, eta honeen bizkar eta mustur-ganeak igurztea, erakarkor eta guragarri izaten jakon Iker mutikotxuari.

Lehengusuak eskolara joaten ziranean, base-txeko ume koskorragoekaz eta aititagaz —amama hil zanean, abadeak eroan ebela ez jakon sekula ahaztuko— eta osaba izekoekaz egoten zan, baina beti be edo sarri behintzat, hara goiko bidezabale-ra begira, lehengusu lehengusinak eta auzoko basetxeko neskatico politikak be, noiz etozan ikusguran.

Atsedean unadetan, eguraldi onez, bost sei mutiko, auzunekoak, etxaurretik hurrean egoan arta zabalaren adar lodien ganera igon eta han je-sarrita edo gora ta behera ezkurak hartzen ibiltzen ziran; bien bitartean neskatoak mutikoei begira batzuetan, potxingo ertzean uragaz josalean hurrengoan.




Arbolatik jatsi, eta mutikoak, eskuzabal, nes-
katoei ezkurak bananduten eutsiezan, eta guztiak
pozik, bakotxa bere etxerantz. Euria zanean ga-
raian, sagardao usainean, edo labagelan, hemen
bai zapatuetan ogi eta arto eta tremes errebarrien
usain zoragarria, eta osterantzean, ganbaran, sa-
baian galtzeko edo jausteko bildurra izaten ebela-
ko. Koltzan be, gauza politik egoten ziran, errota-
txua, zorroztarriak, eta abar.

Eskolumeak bihurtu, eta bazkaldu baino le-
hen, gaztetxuok han urrintxuago egoan iturrira
joan behar izaten eben, "Ur gozoaga" iturrira, tan-
gartak eta txongilak hartu, eta aurrera, burdibi-
dean zehar, batzuetan beherantz, hurrengoan go-
rantz. Iturrira heldu baizen laster, lehenengo ur
drungadea tangartaren tapan edaten eben umeok,
eta geroago, txongil eta kaikuak urez ondo beteta,
bira etxerantz, jeurt egiten eben, bazkaldu eta ba-
rriro be azkar eskolara joan eitezan, iluntzerarte.

Orduko txakurraren izena Kanelo zan, gaztaina kolorekoa haren ulea; guztiz olgetaria zan, mutilekaz jolasean eta igurtzietan ibilteko beti gertu. Astoak garra-garraka hasten ziranean, ostera, zaunka egiten eutsen.

Basetxeko eta aurreko etxe bietako lagunena adiskidetasunaz ganera, beste ezaupide bat eukan Ikerrek. Han aldapan goratxuago bizi zan baserritarrak, Ikerri halango amesbidea sortzen eutsan. Gizon hori morrosko samarra zan, baina txikerra. Beraz, gizon totolea zan; baina orduan Ikerrek, ume guztiak ohi dabena lez, berba batzuk oker esaten ebazan. Eta horrelan, gizon totoloari "gizon totonua" eritxon, eta inguruko guztiak be, irribarrez edo algaraz, "gizon totonua" esaten eben.



“Gizon totonua” berbeta gozokoa zan, Ikerri lilurazko berbak esaten eutsazan, eta gauza bakan eta erdi zoragarriak eukozala sinistuerazo. Berbarako, etxeko bazterretan eta ganbaran hainbat koloretako eta modu ezbardineko txoriak, txintak eta kankak sarri aldatuten ebezan txori ikusgarriak. Ohepean, erbiak ibiltzen zirala. Eta ganbaran, ganerara, erleen ezta, soloan mokila baino ugariago. Eta intxaurrak eta, mizpilak eta... Jaungoikoa lagun. Teilatupea bete-alean egozan gauza bitxiak.

—Etorriko haz morroi gurera? Etorriko al haz, Iker? —esaten eutsan txitean pitean, gozaro esan be, “gizon totonuak”.

Totonuak ez eukan umerik, ez eukan seme-alabarik, umezale itzela zan arren.



Ikerrek haren berbak entzun bai, baina irribarre egin eta ez eutsan inoiz be, baietzik esaten.

—Morroi etorten bahaz, hiretzat izango dozak txoriak, erbiak, eztia eta igaliak. Asto txikerraren ganean ibiliko haz gura doan guztian.

Ikerrek irribarre, baina baietzik ez.

Txorien kantuak benetan gustatzen jakozan mutikoari.

Baina txoriak ihes egiten ekiela be, jakin ba ekian. Horraitio, baserritar patxaratsu haren esan koipeak, zarrada biguna egiten eutsien barruan mutikoari, lur samurrean euri zaparrada maminak egin ohi dauan antzera.

Eta alkarren antzeko ziran egun hareek emon ostean, Iker aititari eta enparauei agur egin ondoren, gurasoengana joan zan, kalera.



Hurrengo udan, Iker basetxera bihurtu zanean, biharamonean ikusi eban "gizon totonua". Sekulako txerea egin eutsan etxaunak, eta ohi eben lez, bere eskeintzea egin:

—Gurera morroi bahator, hango txoriak, eta erbiak, eta... gauza guztiak hiretzat izango dozak.

Ikerren burua, ostera, argitzen joian, eta bere lehengusu lehengusinekaz totonuaren erbien eta txorien autuak erabiltzen ebazan.


Iker zer honezaz konturatu zan:

—Gizon totonuaren basetxea hantxe, hur-hurrean, aldapan goratxuago egonik, eta lehengusu lehengusinak beti auzoan bertan bizi izanik, zelarik ez eben sekula be ez txoririk, ez erbirik... ikusi edo susmau?

Gura ta guraez, morroi joan behar ete zan, basetxe hatako patari politak ikusi ahal izateko?

Kezkea sortu jaken umeei, eta zalantza ta duda usaina totonuaren berba gozoak zirala ta ez zirala.

Basetxekoak irribarre egiten eben eta alkarri begiratu, umeen erdi ixileko barriketak entzutean.



Egunak txiri txiri joan ziran, eta Ikerri handik alde egiteko ordua hurreratu jakon. Lehengusu lehengusina zaharrenakaz, batzar ixilekoak egin eban, etxera joan aurretik. Arrats beranduan, amagaz joan zan kalera Iker.

Biharamonean, goizean, basetxeko umeak eskolarako gertu egozanean, aldapan behera arrapaladan nun datorren Peru Zarakondegi, "gizon totonua".


Zoli egiten eban berba, eta ezkerreko besoa bizkarraldean ezkutauta ekarren.

—Nun dago Iker, gurera morroi etorteko dan Iker hori?

Aitita eta osaba izekoak erdi harrituta egozan, totonua hain goizetik atartera etorkiela ikustean. Eskolumeak labagelara sartu ziran arineketan, eta hango leiho zabaleko egurrezko langa zutunduen bitartetik kurika ziharduen, barreari eutsi ezinik.

—Iker nun dan dinozu? —erantzun eutsien basetxekoak—. Bart joan zan amagaz herrira.

—Ikusten al dozue atartean mukitaren ganean itxi deustan txori koloretsua?



Eta hori esatean, bizkarraldean ekarren eskua aurreratu, eta mantar bategaz estalduta ekarrena agertu eutsen han egozan guztiei.

—Sekulako txori lumatsua! —esan eban karkaxaz aititak—.


Bai zera txoria! Patata galanta zan, oilo-lumaz bere inguru guztia josita ebala, eta mustur batean, piku antzean, arta-ezkurra polito ipinita.

Egundoko barre algarrak egin ebezan guztiak.

Eskolumeak, arrapaladan urten eben labage-latik, trumonadea izan eitekeana, barre gozoetan amaitu zala ikustean.

—Ai, Ai! —deadar egin eutsen, burlezar, totonuak umeei—. Zuek jakin dozue, jakin, barrabanok, lkerrek “gizon totonuari” erregalau gura izan deutsan txori kantaria zelangoa dan...

Eta umeak eskolara ihesi joan ziran, aldapan gora barik beste bide baten zehar, barre ta barre, lehengusua be han urrunean bere lagunei kontetan atseginez ibiliko zala uste izanik.



JESSE-84



UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Félix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Félix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Félix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Edurne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramón Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria
- 25.—PERUTXU ETA JENTILA, Juan Manuel Etxebarria
- 26.—HODEIA ETA ABADIA, Juan Manuel Etxebarria
- 27.—ARGI ETA TXIKO DEABRUAK, Juan Manuel Etxebarria
- 28.—PRAKAGORRIAK, Juan Manuel Etxebarria
- 29.—GORBEAKO TXORI GAIZTOAK, Juan Manuel Etxebarria

LABAYRU-IKASTEGIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 9314/85

Gara.

Tokia.

